

Euskal Gutenberg egitasmoa izan zuen hizpide Torrealdaik euskaltzain osoak

FORUA. Bere jaioterriko Frantziskotarren eliza bete-beterik zela, familiakoak, lankideak eta lagunak aurrean eta euskaltzainak atzean zituela, Joan Mari Torrealdaik forutarrak bere Euskaltzaindiako sarrera-hitzaldian Euskal Herriko biblioteka egitea izan zuen aldarrikapen nagusi. Hizkuntzaren akademiak bere ehungarren urtebetetzea egingo duenean, 2018 urtean, bete beharreko ametsa bezala kalifikatu zuen atzo goizean, ordu biko iraupena izan zuen ekitaldi hunkigarrian.

Bibliografiatik Bibliotekara.

Esperientziari leihoa izenburupean, hi-tzaldia euskarazko bibliografia eta biblioteka k XIX. eta XX. mendeetan izandako saiakerak eta hauetan murgildu ziren pertsonaiak izan zituen mintzagai Torrealdaik, beti ere 'euskal bibliografia eta bibliotekaren lehen ahalegin eraginkorraren mendeurrenaren atarian' gauden honetan.

'Bibliografiaren egunsentiaren' lan horietan burubelarri hasi ziren Quadra Salcedo eta Odon Apraiz -1914-1915 aldera- bezalakoak, baina aurrekariak ere izan ziren hainbat urte arinago -Zabala eta Larramendi lehen euskal bibliografoak-, Torrealdaik 'lehen saioak' deitzen dituenetan. Hala ere, lehen pizkundearen haritik, euskal gaiak jorratzen zituzten liburuen bibliografia gauzatzeko saio sistematikokoak etorri ziren. Baina XX. mendearen hastapenetan heldu ziren euskal bibliografia sortu eta biblioteka nazionala zabaltzeko lehen ahaleginak.

Ondoren, beste zenbait ekintzaile izan zituen gogoan, Eusko Ikaskun-tzaren eta Euskaltzaindiaren sorreran. 'Ez gaude zero puntuan', nabarmendu zuen gaur eguneko egoera aztertzeko, orduko lanak gaurko eredu izan daitezkeelaren seinale. Izan ere, euskaltzain osoak Parisen Soziologia karreran izandako oztopoak bultzatu zuen bibliografiara. 'Bibliotekak eta aldizkariak arakatuz hasi nintzen zerrendak osatzen, oinarritzko fitxa bibliografikoa osotuz', adierazi zuen.

Frankismoko garai latzak atzean utzita, autonomismoak euskal lurraldeen zatiketa administratiboak ekarri zuen baldintzapena gorabehera ere, bada Eusko Jaurlaritzak 2007an onartutako Euskal Kultur Ondarearen legea, tresna eraginkor izan litekeena, 'Euskal Bibliotekari egozten dizkion funtzio guztiok tertzioz betez gero'.

Iraganari errepasoa egin ostean, forutarrak datorrenari gainbegirada egin zion, etorkizun oparoa amestuz eta Euskaltzaindiari leku berezia gordez, 'euskararen ekoizpena eta euskarari buruz mundu zabalean argitara eman den guztia' bilduz, 'Euskaltzaindiaren ikergune berri bat izan' daitekena, 'ahala eta nahia uztartuz gero'. Beti ere 'bibliografia bere eremu guztietan, euskarazko liburua, euskal lurretan jalgia, euskaldunei buruzkoa, euskaldunek idatzia'. Euskaltzaindiaren mendeurrenaren karietara, 2018an izango dena, Torrealdaik 'biblioteka modernoa hibridoa ikusten' du. 'Pizkundeko gogoari teknologia txertaturik sor daiteke Euskal Gutenberg egitasmoa, analogikoa, digitala, birtuala, hots, liburua euskarri guztietan hartuko duena. Eta izaeran, fisikoa eta hormarik gabe aldi berean'.

Ondoren, Jose Antonio Arana Martixa gernikar euskaltzainari egokitu zitzaion, 'Alexandriatik digitalizaziora' solasaldiarekin, erantzuna ematea. 'Euskararen alde Joan Marik egin duen lana amaiera ezinezkoa' dela goraipatuz, arlo profesionalean izan dituen ardurak nabarmenduz. Erantzuna emanda, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman zizkion, eta adiskide eta forutarren omenaldi beroa eta opariak jasotzea egokitu zitzaion.